

UZTURRE: SUSTRAIEN BILLA

Intxausti' tar Jesus jaunaren alboan jesarri naz eta antxe igaro dodaz orduak, ez dakit zenbat, berba ta berba.

Ni Markiña'koa nazala esan dautsadanean, beingoan itzi dau erdereza eta euskeraz berba egiten asi gara. Berak poza agertu dau bide zabal batera sartu garala uste dauala.

Alkar-izketea erreza izan da. Jesus'egaz berbetan, gauza erreza da Euzkadi' ren kondairara sartzea eta kondaira gazte askorentzat gauza bizi-bizi biurtu jaku.

Zelako sakontasuna aren gomutakien osiñean! Zelako ametsak, oarikasiak. Bizitza luzea daroa bere ganean, testigantzaz, neke-artzez negarrez eta pozez beterik dagoan bizitza! Berau dogu gure kondairaren milla orrialdeetan benetako lekua.

Gipuzkoa'ko Tolosa'n eta 1912n. urtean jaio zala gogoratu daust, Tximelka eritxon sagardautegian, eta antxe bizi izan zan gudara arte. Intxausti'tar Jesus'ek Leunda'tar Fausto'gaz batera, zeregin aundi bat bete eban Jaurlaritzaren barruan. Ez dot aitatuko urte bateko epea baiño, Bilbao galdu artekoa, edo apur bat geiago bear ba da, Iturriotz edo Truzios'era arte.

Intxausti'tar Jesus eta Leunda'tar Fausto Eusko-Jaurlaritzaren lenengo itzultzaileak izan ziran. Onein aurretik Enbeita'k bete eban zeregin ori.

Gauza ederra izango zan, emen gure artean gaur Fausto izatea. Aren jazoera asko gogoratuko eutzuzan, baiña orain urtebete ta erdi il zan. Izlari guztiz ona zan.

Eurak itzuli ebezan euskerara Agirre'tar Joseba Andoni'ren izaldi, agerpen eta lan guztiak. Guztiz irakurgarria da Lenengo Jaurlaritzaren Aldizkari Nagusia. Gaur dana dago iru aletan batuta eta egunkariak, bilduma guztien artean, gogoangarriak dira.

Apur bat atzerantza begiratzea da. Lan astuna daroan Agiri Nagusia. Ez jataz aiztuten Aldundegian igaroten genduzan amaibako egun luze areik. An egiten gendun itzulketa ta zuzenketa-lana eta irarkolarako gertakuntza. Gure alegiñak berbak zeaztuteko eta argetzeko eta esaldiak ulerterrez biurtzeko! Ez geunkan iztegirik. Orregaitik lan aundia egin genduan sustraiak billatzen.

Berak eukon euskerearen ezagutze sakona, garbitu eta sendotu egin eban Intxausti'tar Jesus'ek, Tolosa'ko lekaide-etxean nagusi zan Iruarizaga'tar Jerbasio'gaz. Berak diñost, gaiñera, Lizardi'tar Xabier eta Labaien'dar Antonio M^a maixu on bi izan ebazala..

Agiri Nagusia itzultzeko lanean asko lagundu euskuen Gorostiaga'tar Juan'ek eta Etxegarai'tar Karmelo'k. Ez zan lan erreza, politika-giro nastatu aretan.

Zalantza barik, konturatuko da irakurlea aldi barrietan oikera diran erderazko itzak euskerara itzultzeak zelako gaiztasuna daukan. Ez da erreza oraintsu sortuak diran gauzai itzulpen egokia ezartea. Esaterako arduraleku eta erakunde barriai eta abar.

Gure lenengo lanerako jokabidea, sustraiak billatzea izan zan. Mezuai euskal kutsua sartzen alegintzen giñan. Benetan nik auxe sinisten dot eta uste dot: Gure itzulpen-lanak errez ulertzen zirala. Euskerearen joskerea aldatzeko arriskua aundia izaten da. Erderako itzasko erabilten dira, baiña arriskua, izkuntza lez dauan bizitasuna galdu dauan euskerea erabiltea da eta ori jazoten da gaur. Euskeran bertan sustraiak dauzan euskerea indartu bear da.

Eta jazoera bat gogoratu eustan: Eugenio D'Ors'ek, idazki bat idatzi ondoren, bere idazkariari emon ei euston ondo ulertzen ete zan itauntzeko. Eta erantzuna, baietz, ulertzen zala, izaten zanean, idazleak berba traketagoak eta illunagoak billatzen ebazan irakurketa gaxagoa izan zedin.

Lanak asi genduzanean, geu eguneratu-bearra izan genduan. Ez zan gauza erreza albiste ta itzaldi areik euskera argi zabaltzea eta euren mamiña zintzo eta zeatz iragartzea.

Jesus'ek bere bizitzako zertzelada batzuk edestu daustaz. Gernika'ko bonbaketa, esterako. Au berak bere begiakaz ikusi eban plazako arkupeetatik eta babespe baten barrutik. Bera bitan zelan espetxeratu eben edestu daust. Gero Paris'en igaro eban erbeste-aldia, arik eta Agirre Lendakaria il arte. Bruselas'en, OIT-inguruan lankide lez igaro ebazan ogei urteak, illeroko aldizkaria eta Lanaren Munduko Alkartean astero agertzen ebazan barriak.

Euskadi'ren kondairan aldi asko dagoz illunetan, bear daben jartortasuna eta egia eurai ezarri barik. Lan ori aztertzaile ta egibideko burutasunakaz egin-bearrekoa da.

Jesus lankide on bat dogu "Euzkadi" aldizkarian. Bere gizontasuna ta ontasuna onuragarri izatea billatzen dot. Izan be, amairik ez dauken gomutakien, oar-ikasien eta ametsen osin sakona da.

Bere adiskidetasuna omengarri da nitzat.

OLAZAR'tar Martin'ek
"EUKADI" 212'tik
Euskeratu ta egokitua.
(Idazlea: Koldo Lizundia)